

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Puttana, ma pia



Ezkerretik eskuinera, Elisabet II.a Borboikoa; Elisabet erregina, haren ahizpa eta Kristina erregina Donostiako Altza auzoan bisitan; eta Pio IX.a Aita Santua.

DONOSTIA, 1868KO IRAILAREN 17A. Elisabet II.a Borboikoa, Espainiako erregina, Donostian zen oporretan. Urte batzuk lehenago hasi zen udaldiak bertan pasatzen, itsasoan bainu hartzeak mesede egiten ziolakoan. Baina 1868ko uda hartan urak nahasita zeuden eta irailaren 17an, Iberiar penintsularen beste erpinean, Cádizen, armadako adarrik aurrerakoiena erreginarean aurka altxa zen, monarkiak autoritarismorako joera gero eta nabarmenagoa zuela eta.

XIX. mendearen erdialdean Espainiako Estatuko ekonomia zertxobait suspertzen hasi zen. Katalunian ehungintza fabrikak zabaldu ziren, Euskal Herrian altzairugintza sustatu zen, penintsulan ferrokarril linea berriak eraiki ziren... Emaizta positiboek adoretuta, Elisabet II.ak gobernuko adar aurrerakoa baztertu zuen. Eta nazioartean horren aldeko jarrerak bildu zituen, esaterako, Vatikanorena.

Urte batzuk lehenago, Aita Santuak Elisabeten seme Alfontso XII.a bataiatzeari uko egin zion, adulterioaren emaitza zela argudiatuz. Baina 1868an bertan Pio IX.ak Urrezko Arroza, Vatikanoko sari preziatuena, eman zion Espainiako erreginari. Elisabet II.a ez zen ezaguna bere moral katoliko zorrotzagatik eta kuriako kardinal batek bere desadostasuna adierazi zuen, erreginari puta esanez. "Puttana, ma pia" (puta, baina eliz-

koa) erantzun zuen Pio IX.ak. Erreginarean ospe txarra alde batera utzita, Aita Santuari monarkia kontserbadorearen aliatua izatea komeni zitzaion.

Espainia barruan giroa oso bestelakoa zen, eta irailean armadako aurrerakoiak eta herritarren haserrearen lehertu egin zen. Prim, Serrano eta Domínguez jeneralak buru zituen altxamendua, Iraultza Loriazua izenez ezaguna, berehala zabaldu zen. Elisabeten eskolta moduan Donostian zeuden gerraontziak ere altxatuekin lerratu ziren. Elisabetek Pavia jenerala bidali zuen altxamendua itzaltzeko, baina alferrik.

Irailaren 26ko gauean, ministro kontseilua azkenekoz bildu zen Donostian. Ministrokek Alfontso XII.aren alde abdikatzera behartu zuten Elisabet. Baina keinua berandu iritsi zen. Berehala Serrano jeneralak –urte batzuk lehenago erreginarean amorante izanak– Pavia garaitu zuen Alcolean. Irailaren 29an, erreginak gaua Irunen igaro zuen eta biharamunean muga zeharkatu eta Hendaia iritsi zen.

Elisabet II.aren udaldia eta erregealdia hor amaitu ziren. 1868ko iraultzak ez zuen aldaketa handirik ekarri Espainian; bi urte geroago Alfontso XII.a eseri zen tronuan. Baina erreginak udak Donostian igarotzea erabaki izana erabakigarria izan zen hiriarren etorkizunean.

Arrastoak

Ura ateratzea Antzinaroan

OIASSOKO (Irun) erromatar aztarnategian metalezko pieza txiki bat aurkitu zuten eta pieza txiki horretatik abiatuta, makina osoa berreraiki zuten: Ctesibionen ponpa hidraulikoa. Aurkikuntza hori aitzakia, *Balbulatik ponpara*: *Oiasso eta ura ateratzeko metodoak Antzinaroan* izenburuko erakusketa paratu dute Oiasso Museoa urriaren 31 bitartean.

Ctesibionen makina hura Antzinaroan ura ateratzeko metodo bat zen, baina ez bakarra. Noria, Arkimedesen torlojua eta patenotrea ere erabili zituzten Antzinaroko gizakiek ura mugitu ahal izateko. Eta horien guztien inguruko azalpenak bildu dituzte Oiasso Museoko erakusketan.



Balbulatik Ponpara erakusketaren afixa. Irungo erakusketa urriaren amaiera bitartean egongo da zabalik.